


## “Gure zinema gaur” aztertuko da aurten Komunikaldietan

2009/02/26

Aurten ere iritsi dira Komunikaldiak HUHEZI fakultatera. Martxoaren 4an izango dira, egun osoz. **Komunikaldiak** jardunaldiak dira, urtero egiten dira, beti gai jakin baten inguruan: tokiko telebistak, bikoizketa...

Aurtengo Komunikaldiak, berriz, gai honen inguruan landuko dira: **“Gure zinema, gaur”**.



### Egitaraua

**09:00** Jaialdien aurkezpena

**09:15** Iosu Zabala, Mondragon Unibertsitateko errektorea

**09:30** Mahai-ingurua: "Fizkiozko zinemaren egungo panorama". Parte-hartzaileak:

- Jabi Elortegi ('Zorion perfektua' filmaren zuzendaria)
- Jon Garaño ('Axun eta Maite' filmaren zuzendaria, Jesus Mari Goenagarekin batera)
- Aizpea Goenaga ('Sukalde-kontuak' filmaren zuzendaria)
- Moderatzailea: Aitor Arregi, 'Lucio' dokumentalaren zuzendari eta Huheziko irakaslea

**11:00** Kafea.

**11:15** Hitzaldi-elkarrizketa. Juanba Berasategi ('Barriola, San Adriango azeria' marrazki bizidunetako filmaren egilea). Gidaria: Andres Gostin, Huheziko irakaslea

**13:15** Bazkaria

**15:00** Mahai-ingurua: 'Euskarazko film luzeak ekoizteko eta banatzeko zailtasunak'. Parte-hartzaileak:

- Maria Jesus Diez (Barton Films banaketa etxeko arduraduna)
- Iñaki Gomez (Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko zuzendaria)
- Joxe Portela (Ibaia, Ikus-entzunezko Ekoiztetxe Independenteen Elkarteko lehendakaria)
- Moderatzailea: Eneko Olasagasti, zinema zuzendari, gidoigile eta Huheziko irakaslea